

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI) 2009ko MAIATZA

Euskal AEko industri jarduera %-26,5 murriztu zen 2009ko maiatzean


Aurreko hilaren, 2009ko apirilaren aldean, %-3,3 murriztu zen

Eustatek landutako datuen arabera, 2009ko maiatzean %-26,5 murriztu zen Euskal AEko industri produkzioa lan-egutegiko baldintza homogeneousan, 2008ko hil beraren aldean.

Urtaroen eragina zuzenduta, %-3,3 murriztu zen Euskal AEko industri produkzioa, 2009ko apirilarekin alderatuta.

Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hazkunde zuzendua, hiruhilabeteka

% hazkundea



Iturria: Eustat

Sektoreen arabera bilakaera

Sektoreen arabera, eta industri sektore nagusiak sailkatu ostean, 2009ko maiatzeko indizearen bilakaerak den-denen jaitsierak erakusten ditu, 2008koaren aldean. Bitarteko ondasunek %-32,0ko jaitsiera izan dute; Ekipoko ondasunek %-31,4koa; Energiak %-7,7koa; Kontsumoko ondasunek %-12,6koa, Kontsumo ez-iraunkorreko (%-9,0) eta batez ere iraunkorreko (%-21,8) ondasunen jaitsieragatik.

2009ko apirilaren aldean, 2009ko maiatzean hil arteko aldaketak negatiboak izan dira denetan, Kontsumoko ondasunetan (%0,7) izan ezik, Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek (%1,0) izandako igoerak eraginda, Kontsumo-ondasun iraunkorrek % -0,2 jaitsi baitziren. Energia %-5,7 jaitsi da, Ekipoko ondasunak %-5,6 eta Tarteko ondasunak %-3,2.

Herrialde Historikoen arabera bilakaera

Herrialde historikoei dagokienez, Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaera negatiboa izan da hiruretan: Araban %-32,6, Bizkaian %-24,2 eta Gipuzkoan %-25,5.

Hil arteko tasak, 2009ko maiatza apirilaren aldean, negatiboak izan dira hiruretan: Araban %-1,9, Bizkaian %-4,8 eta Gipuzkoan %-2,1.

Taula: 2009ko MAIATZA. Euskal AEko Industri Produkzioaren Indizearen aldakuntza-tasak (%).

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazionalizatua	
	Mai09/Mai08	At/At-1 (1)	Mai09/Api09	Api09/Mar09
Indize orokorra: Euskal AE	-26,5	-24,8	-3,3	0,4
Araba	-32,6	-31,1	-1,9	-2,3
Bizkaia	-24,2	-21,9	-4,8	1,6
Gipuzkoa	-25,5	-24,7	-2,1	0,3
Indizeak helburu ekonomikoka-Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	-12,6	-16,0	0,7	0,4
-Kontsumo-ondasun iraunkorrek	-21,8	-26,8	-0,2	2,6
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek	-9,0	-11,8	1,0	-0,3
Ekipo-ondasunak	-31,4	-26,8	-5,6	-0,1
Bitarteko ondasunak	-32,0	-31,1	-3,2	-1,0
Energia	-7,7	-5,0	-5,7	2,6

(1) t urteko urtariletik azken hilera arte metatutako aldiaren urtetik urterako aldaketa-tasa da, t-1 urteko aldi berberaren aldean.

Iturria: Eustat

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Telef.: +34 -945 75 00 Faxe: +34 -945 75 01 e-mail: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp